

Kantuz eztanda

Aitor Sarasua bertsolariak egin ditu Herri Urratseko kantuen hitzak

AURTENGO Herri Urratseko kantua Eztanda taldearen eskutik heldu da. Herri Urratseko festaren isla gisa, Eztanda taldea mugaz bi aldeetako lau kidek osatzen dute: Oskar eta Aitziber Eztanga donostiarrak (trikiti eta panderoa), Beñat Zozaiá urruñarrak (baxoa) eta Christian Amorena saratarrak (bateria).

Eztanda taldea orain dela bi urte sortu zen, Eztanga anaia-arrebak EITBko Euskal Herriko Trikitixa Txapelketan txapeldun atera ondoren. Geroztik, plazaz plaza ibilki dira. Momentuko erromeria gisako kontzertuak egiten dituzte, kantu ezagunak harturik. Baina jadanik hasiak dira zenbait kanturen prestatzen. Euren xedea urte bukaerarako disko bat ateratzea da, Durangorako adibidez.

Herri Urratseko kantuen hitzak Aitor Sarasua bertsolariak egin ditu. Bertan, Iparraldean historian zehar euskararen bultzatzaile garrantzitsu izan diren Bernat Etxepare, Axular eta Jean Louis Maitia omentzen ditu. *Euskara hazi, euskaraz* leloarekin ere, euskaraz mintzatu eta kantatzeko gonbita egiten dute.

Musika, berriz, Eztanda taldearena da, dantza eta kanturako aproposa. Kantua joan den urtarrilean grabatu zuten, IZ disketxeak Amasan duen estudio paregabea. Bertatik disko konpaktu bat atera dute. Grabaketarako, Joseba Tapia eta Angel Untzuren laguntza ukan dute.

Oraindik ezagutzen ez dituenak igandean ukanen du parada paregabea, Arabako gunean ariko baitira, arratsaldeko hiruretatik landa.



Eztanda musika taldeko kideak.

Etxeparek hura
zuen arrangura
Euskara Jalgi hadi mundura.
Orain guk dugu gakoa,
aitzin urratserakoa.
Elkarrekin abiatuz
bidea jorratuz.
Guretzat,
Herri Urratseko festa,
geroa urratzeko kezka.

Axularrek aldiz
zion mila aldiz
geroko menturan zenbat gizaldiz.
Orain guk dugu gakoa,
aitzin urratserakoa.
Elkarrekin abiatuz
bidea jorratuz.
Guretzat,
Herri Urratseko festa,
geroa urratzeko kezka.

**Euskara hazi euskaraz
mintza gaitezen beraz
Euskaraz hazi euskara
aitzina ari gara!**

Maitiaren leloa
euskaraz geroa,
ikastolarekin hedatuz doa.
Orain guk dugu gakoa,
aitzin urratserakoa.
Elkarrekin abiatuz
bidea jorratuz.
Guretzat,
Herri Urratseko festa,
geroa urratzeko kezka.

**Euskara hazi euskaraz
mintza gaitezen beraz
Euskaraz hazi euskara
aitzina ari gara!**